

---

2009/6/24

Lehenik eta behin, galdera bi egitera ausartuko gara. Alegia, Globalizazioa aipatzen dugunean, munduari interesgarri egiten gatzazkiola aurrepentsatua dugu jadanik; eta baita mundu gure interesekoa dela. Axola zaigu mundua? Axola diogu munduari? Beraz. Eta gero honako galdera: Zertarako?

Zer erakutsi nahi dugu, eta zer jaso nahi dugu bertatik? Baina agian ideia nagusia, oraindik ere, identitate GloKal hori eraikitze prozesu dinamikoan dagoela azpimarratzea da. Batzutan, identitatea kontzeptu estatiko bezala aurkezten da. Hizlariak, bere partetik, identitatea, euskal subjektu baten zentralitatearekin aurkeztu gura luke. Berau, kanpotik naiz eta barrutik etor daitezkeen eragin soziokulturalekin aberastu eta etengabeko erretroalimentazio elkarrekintzan. Horretarako imajinarioa eta sorkuntza beharrezkoa da, gure barneko identitatea dinamikoari bidea emateko eta berau kanpoko fluxuekin erkatzeko.

Horretarako, GloKalizazio kontzeptua azalduko dugu, eztabaida bideratzeko. Friedman eta Florida-ren ikuspuntuak ezagutuko ditugu. Baita S.Leoné-ren ekarpena, hizlariak kontuan hartzen duena. Eta guzti honetan, Euskarak, identitate horren eraketan eta kudeaketan, lehentasunezko leku bat betetzen du.

Euskara, globalizazio prozesu horren erakusle eta gure markarik argiena beharko luke izan. Kontzeptu honen garapena Euskal Herri barruan eta kanpoan, hiritartasun nozioa lantzen hastea dakar bere gain. Azken batean, proposatzen dena, euskal identitate dinamiko baterako bidea jartzen joatea da, non mapa globalean bere lekua izango duen.

Bukaeran, 10 ideien dekalogo bat aurkeztuko da, hiritartasun, aniztasun eta gizarte konplexutasunaren ondorioz eratuko den Euskal Hiriaren egituraketa ulertzeko.